

GEOEUSKADI BISOREAREN ERABILERA

1 INFORMAZIO OROKORRA

- Prestakuntza arloa** Hirigintza, Ingurumena eta Etxebizitza
- Modalitatea** Aurrez aurrekoa
- Hizkuntza** Euskera
- Iraupena** 10 ordu

Hartzaileak:

Administrazio langileak, A eta B taldekoak.
Profesionalak eta unibertsitateko tituludunak.

Irakaslea

Nerea Zubizarreta Guisasola



1 Datak: Urriaren 14 eta 15a

Ordutegia: 09:00-14:00

2 Matrikula:

Eskaera egiteko azken eguna: urriaren 3a Oniritzi epea: urriaren 8a

Eusko Jaurkaritzako enplegatu publikoek, automatrikulazio bidez.
Udal eta foru administrazioetako langileek beren heziketa-koordinatzailearen bitartez.
Unibertsitateko tituludunak: IVAPeko web orriaren bidez: *eskaera*

Prezioa

119,70€

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa finkatzen duena. (2022ko uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

3 Baja emateko azken eguna: 2026ko urriaren 13a

2

HELBURUAK

Helburu orokorrak

GeoEuskadi bisoreak mapak eta informazio georreferentziatua kontsultatzeko, aztertze, kargatzeko edo editatzeko dituen tresnak ezagutzea. Ariketa praktiko batzuk egitea GeoEuskadi bisorearen erabiltzaile gisa ohitzeko eta tresnari ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko.

Ikasleen helburuak

GeoEuskadiren bisorearen erabilerari buruz eskuratutako ezagutzak aplikatzea, informazio geolokalizatua kontsultatzea edo sortzea beharrezkoa den espediente edo proiektuen kudeaketan erabili ahal izateko

Gaitasunak

Ikastaroaren amaieran ikasleak jakingo du.

- GeoEuskadi bisorean kargatutako oinarrizko kartografia, ortoargazkiak eta lurralde informazioa kontsultatzea.
- Bisoreari buruzko datu geografikoak bilatzeko, aztertze eta horiekin lan egiteko tresna nagusiak erabiltzea.

3

PROGRAMA

URRIAREN 14a

1- GeoEuskadi. Proiektuaren jatorria eta xedea.

- Arau-esparrua. 69/20 Dekretua. Arau kartografikoak.
- Baliabide nagusiak: geoataria, konparatzailea, bisorea, datuen katalogoa, deskarga eta zerbitzuak.

2- Kartografiaren eta informazio geografikoaren inguruko definizioak.

- GeoEuskadi. Datuak
- Oinarrizko kartografia eta ortoargazkiak.
- Datu altimetrokoak eta lidarrak. Sestra kurbak eta kartografia eratorria.

3- Bisorea. GeoEuskadi.

- Oinarrizko tresnak.
- Geruzen zerranda. Nire geruzak.
- Oinarrizko geruzak. Bilatzaileak.
- Lurraren profilak.

4- Bisorea. Edizioa.

- Editatu.
- Dauden geometriak atzematea.



5- Beste tresna batzuk.

- Inprimatzea. Partekatu. Gogokoak.
- Hegaldiko argazkiren data.
- Hautaketa espaziala.
- Tekla azkarrak.
- API GeoEuskadi.

URRIAREN 15a

6- Kasu praktikoa 1.

- Oinarrizko tresnak, oinarrizko geruzekin eta gainjarriekin lan egitea.
- Ortoargazkien konparatzailea.
- Sinbologia. inprimatzea eta mapak partekatzea.

7- Kasu praktikoa 2.

- Elementuen geolokalizazio bidezko bilaketak mapan.
- Atributuen taula. Iragazkiak eta aukeraketak.
- Kanpoko informazio kargatzea. SHP eta WMS zerbitzuak.

8- Kasu praktikoa 3.

- Edizioa.
- Geometriak neurtu eta marraztea.
- Dauden datuak kargatzea edo fitxategiaren bidez kargatzea.
- Elementuen bufferra.

9- Kasu praktikoa 4.

- Lurraren profila.
- Hautaketa espaziala.
- Tekla azkarrak.

4

METODOLOGIA

Aurrez aurreko saioak.

Ikastaroa erabat praktikoa da, ordenagailua erabiliko da eta Internetarako konexioa.

Beharrezkoa izango da ordenagailua etengabe erabiltzea, beraz, ikastaroa egin ahal izateko, pertsona bakoitzak bere ordenagailua ekarri beharko du.

5

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta irakasleen balorazio-inkesta.

Posta elektronikoaren bidez, inkestaren esteka jasoko duzu betetzeko.

6

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua:

Ikastaroaren helburu orokorrak eta espezifikoak betetzen direla bermatzea.

Ebaluazioak erantzun laburreko galderen proba izango du, erantzun okerrak ez dira zigortuko eta gutxienez, froga gainditzeko, sei erantzun zuzen eduki behar dira.

Kalifikazioa honako hau izango da: GAI / EZ GAI.

Ziurtagiria jasotzeko betebeharrak:

- %80ko bertaratzea.
- Aprobetxamendu froga gainditzea.
- Matrikula ordaintzea.

7

IZEN EMATEA

1- Eusko Jaurlaritzako enplegatu publikoek, **automatrikulazio bidez**.

2- Udal eta Foru administrazioetako langileek beren **heziketa-koordinatzailearen bitartez**.

3- Unibertsitateko tituludunak, IVAPeko web orriaren bidez, **eskaera**

ONARPENA

Eskatzailearen onarpena: onartutako guztiei emailaz baieztatuko zaie onartuta daudela.

BAJAK

Bajaren bat gertatzen bada, interesatuak edo prestakuntza koordinatzaileak horren berri eman beharko du email bidez ikastaroa hasi aurretik, bestela, matrikula ordaindu egin beharko da.

MATRIKULA ORDAINTZEKO

Erakundeak: Behin ikasturtea hasita, IVAPek faktura egingo du. Faktura hori fakturazio elektronikoren bidez bidaliko zaie enplegatu publikoen erakundeei, ordain dezaten.

Partikularrak: eskabidean adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko "Nire karpeta" ataletik eskuratu ahal izango dituzte matrikula eta ordainketa-gutuna.

Enpresak: Matrikularen ordainketa eta ordainketa-gutuna, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko "Nire Karpeta" ataletik eskuratu ahal izango dituzte.

Ordainketa, aurrez aurre egin ahal izango da atxikitako finantza-erakundeetara edo haien kutzazainetara joanda (kutxabank, Laboral kutxa, Sabadell-Guipuzcoano, La Caixa, Bankia, Bankoa, BBVA eta Banco Santander).

Matrikula ordaintzen ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru Bilketa Erregalamentua onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoa beteko da.

8

OHARRAK

Harremanetarako: evetu@ivap.eus